



Gipuzkoako Mendizale Federazioa

Anoeta Pasealekua, 5 Donostia 20014 (Gipuzkoa)

Tfno. 943-46 14 40

e-mail: gmf-administrazioa@kirolak.net

GIPUZKOAKO MENDIETAN HIDALKOAK OROITZEKO ELEMENTUAK JARTZEKO IRIZPIDEAK

Gipuzkoan zabaltzen ari da hildakoen oroimenez oroitarriak, lexiak edo xaflak jartzeko ohitura. Lehen, elementu hauek leku esanguratsuetan ezartzen ziren, baina gaur egun edozein lekutan ezartzen dira eta kasu askotan lekuak berak duen xarma galtzen du.

Gaia oso sentikorra da, eta tentuz ibili beharreko pausoak eman beharko dira, baina arazoa zabaltzen ari dela uste dugu eta mugak jarri beharko genituzkeela. Gure ustez, poliki-poliki elementu hauek gure mendietatik desagertzea izan beharko luke helburua.

Helburu hori lortzeko bidean, Gipuzkoako Mendizale Federaziotik irizpide hauek proposatzen ditugu:

- 1.- Hildako pertsonak oroitzeko ez dira gurutze, lexiak edo xaflak erabiliko.
- 2.- Bertoko zuhaitzak erabiliko dira, beti ere, paisaian eragin kaltegarriarik sortu gabe. Noski, zuhaitza soilik jarriko da, inolako xafla adierazgarriarik gabe
- 3.- Natur Gune Babestuetan dauden elementuak kentzea proposatuko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, araututa badago behintzat.
- 4.- Federazioa, herrialdeko mendi elkarten laguntzarekin, elementu hauen inbentario bat egiten saiatuko da. Datu hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Zerbitzuaren esku utziko ditu.
- 5.- Gipuzkoako Mendizale Federazioa nahiz mendi elkarteak irizpide hauek ezagutarazten saiatuko dira.

Kasu batzuetan ez dira mendizaleak izaten mendietan elementu hauek ezartzen dituztenak; beraz, arazoaren berri gizarte osoari emango diogu.

Azkenik, argi utzi nahi dugu maite dugun pertsona bat oroitzea errespetagarria dela, baina beti ere ingurunea zainduz.

Donostian, 2013ko martxoaren 7an

OHARRA: Irizpide hauek Federazioko Zuzendaritza Batzordeak onartu ostean, Foru Aldundiari helaraziko zaizkio, arazoari irtenbidea emateko bidean elkarlana proposatuz.